

JOAN BAXURKO ETA ANSOLA OLERKARIA

Irun-Urantzu'ngo urian il da euskal-olerkari au, igaro dan Aben-
dua'n (1957-XII-25). Ondarrabiarra sortzez (Jaizkibel mendiko "Purgato-
riyo" bordan jaio: 1890-V-29). Irun-Urantzu'n bizi izan da urte askotan.
Urruñe'ko "Auskinenborda"-n, gerra denboran. Arotz-lanean irabazi du
eguneroko ogia. Gizon ona eta apala, langillea, kristau zintzoa, euskaldun
jatorra; ikasi aundikoa izan ezarren jakinzalea hai, adimen argikoa oso,
asko irakurria, euskeraz batez ere; benetan maite izan du euskera. Ama-
zortzi urte inguru zituala Pello Mari Otaño'ren olerkiak irakurri zituan,
eta bertsuak egiteko zaletasuna sortu.

Gerra aurretik Irun-go "El Bidasoa" astekarian eman zituan olerki
ugari. Urruñe'n egindakoak biozketa aundikoak dira; argitara eman gabe
daude oraindik. Olerki asko egin eta argitara eman ditu euskal-aldiz-
karietan. Poema luze batzuk ere bai: JESUS (Jesukristo'ren Bizitza,
Arantzazu'n, 1954), IÑAZIO DEUNA (Aita San Iñazio'ren Bizitza, Val-
verde'ren Irarkola'n, 1955), SEBE PEÑA IBILKARIA'RI (Itzaropena,
1957), ARANTZAZU'KO AMA BIRJIÑA'REN POEMA LABURRA (Arantza-
zu'n argitaratzen orain). Sariak ere irabaziak ditu: Bayona'n, Miarri-
tze'n, Sara'n, Buenos Aires'en (Regino Galdos saria) etab.

Irun-Urantzu'n beste entieru baten ikusi ez dan beste jende joan
zan Baxurkorenera. Euskaltzaindia'ren izenean Aita Larrañaga Apezpi-
kua, Aita Manuel Lekuona, Anai Berriotxo eta José Andoni Loidi. G. B.
euskera oso maite izan duen Bidasoar au.

N. A. G.

EUSKALTZAINDIAK ILBELTZEKO 12 - AN BILBO - N ANTOLATU ZUEN JAIALDIA

Igaz Azkue-ren gorazarrean bezala, Euskaltzaindiak aurtengo ilbel-
tzeko 12-an jaialdi aundi bat antolatdu du Bilbo-n. Erregeketan egiteko
asmoa zegoan, egun orretan oitura artzeko, baiña arrazoi batzukatik
atzeratu egin zen. "Gabonetako agerkizuna" izenarekin D. Jesús Gon-
zález apez jaunak Testamentu zaarreko ta Berriko zenbait agerkizun
aurkeztu zituen.

EUSKERAZKO DOTRIÑA BERRIA BIZKAIAN

Euskaltzaindiak igaz, ikastaroa asterako, Bilbo-ko apezpikuaren
eskabidez Espaiña guztirako egindako dotriña berria itzuli zuen Biz-
kaiko euskerara.

EUSKERA ELEIZETAN

Bilbo-n igazko abenduan irurren bat egon zen Jesuiten Kolegio-ko
eleizan.